



MAPSA S.COOP.

EUSKARA PLANA



ZER DA MAPSA?

Hagunak (Ilantak) ekoizten dituen kooperatiba bat da.

Orkoien kokatua eta 500 langile inguru hoietatik 350 inguru bazkide garenak.

50 urte inguru izango ditu eta kooperatiba bezala 25-30 inguru.

Mondragon taldearen barne gaude.

ZER EGIN DUGU?

Euskara plana hamabost urtez garatu

- Diagnostikoa egin
- Euskara eskolak martxan jarri
- Hizkuntza irizpideak ezarri
- Motibazio ekintzak
- Hausnarketa estrategikoa

BIDEAN IZAN DITUGUN ZAILTASUNAK



- Euskararen ezagutza %10 inguruan
- Hasieran zenbait lankideren erresistentzia
- Irizpideak betearazteko ohitura mantentzea
- Euskara eskolei eusteko arazoak azken bi urtetan

BIDEAN SORTU ZAIZKIZUEN AUKERAK



- Hausnarketa estrategikoak bideratura beste ikuspegi bat zabaldu zaigu
- Euskara plana enpresako beste arlo batzuekin lotu

Adibidez: Kontseilu sozialarekin bat eginik lan taldeak sortu beste proiektu berri batzuk aurrera eramateko eta euskara hasieratik txertatua.

ZER EGIN DUGU ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO ETA AUKERAK INDARTZEKO?

- Euskara eskolak eta beste ekintza asko martxan jarri ezagutza haunditzeko
- Aurkako jarrera izan dutenekin ez gara gatazketan sartu eta ahalik eta adostasun haundienarekin egin dugu aurrera
- Oroitarazpen dagokien arduradun eta zuzendariekin irizpideak betetzeko.
- Euskara eskolak berriz martxan jartzeko kudeaketan gabiltza.

ZEINTZUK DIRA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK?

-8 helburu estrategiko garatzea :

- Euskara kolektiboaren kohesiorako tresna bihurtzea.
- Euskara Planaren bidez norbanakoen inplikazioa handitzeko bideak jorratzea.
- Enpresaz kanpoko guneetan proaktiboki aritzea.
- Euskara eskolak berreskuratzeko baldintza egokiak ezartzeko aukerak aztertzea.
- Euskara Planetik Mapsa sozialagoa izateko bidean ekarpena egitea.
- Printzipio kooperatiboak oinarri eta Mapsako irizpideak tresna, hizkuntza politikaren gauzapenerako prozesuak zehaztea.
- Euskal hiztunen sarea osatzea.
- Euskararekiko eta aniztasunarekiko errespetua lantzea.

Euskaralangai.eus

